


Nafarro berria Tuteran

Aurtengo «Nafarroa oñez» eguna, benetan ederra izan da, Tuteran. Bertako ikastolak, «Argia» delakoak zuzendu du jokabide nagusi ori. Arrakasta galanta jaso dute. Elburu den denak bete dituzte. Ixtillurik gabe joan zaie eguna. Txoro batzuen lan txarren beldurra zeukaten. Erriaren erantzuna oso jatorra izan da. Jaiaren Antolatzaileak, inguruko errietan giro ona sortzen alegeiak egin zituzten. Zorionez erantzun zabal jaso zuten, baita alkate multzo ederra: Tuteran, Cortes, Fontellas, Castejon, Valtierra, Ribaforada, Cintruénigo, Arguedas, Ablitas. Orreko aunitz erran nai du.

Gainera, Nafarroa'ko Jaurilaritzatik agintari andiak etorri zaizkie: Xabier Otano, Juan Cruz Alii ta Iñaki Cabases aolkulariak, baita Luis Campos bertako alkatea.

Euskaldun gizasemeak berriz, erruz joan zaizkie. Bide luze ura euskalalez josita zetorren, ugolde baten antzera. gaztez lertzen, eten gabe, denak oñez zebiltzan. Ba zeuden gizaseme elduak ere, baiñan geientsuenak amalau amazapi urte tarte ortakoak. Aunitz urrutitik zetozten: Bizkaik, erruz, uste baiño geiago Arabatik, geientsuenak Gipuzkoa'ko errietatik, zer erran ez Nafarroa'atik?, baita Iparraldetik. Geltoki egoki ta zabal artan ba zeuden 650 autobus, ta 18.000 berebil.

Denetara eun milla gizaseme, edo inguru ortan nunbait. «Nafarroa oñez» ospatzera etorriak. amets bat. Tuteran agurtzera, Euskalerrri osoa etorri zela zirudien. Ikusle obegorik ezin zuten euki. Bi gizarte, aurrez aurre begira zeuden: Euskalerrria ta



Erribera. Ikusi zutenekin, biek arriturik zeuden. Ez zuten izan beinere orrelako aukerarik. Ez zen iñoiz entzun euskararik an, orrenbertze.

Baita erran dezagun: Erribera'ko arpegi berria ikusi genuela, euskal giro gartsua ta euskararen gogoa. Bertako semeak, lana gogotik egin zuten egun osoan, eten gabe. Euskal giroa sortzeko ekintza aunitz zeuden baztarretan, adibidez, Cortes eta Otsagi'ko dantzariak, Huarte'ko Zanpanzar, Lizarra'ko gaiteruak. Iñaki Perurena arrijasotzalea. Euskal Meza jesuitetan jarri zuten, ikastetxean. Gaiñera, ainbertze jateko ta edateko tokiak zeuzkaten. Garbiketa egiteko, zer erranik ez, laguntza naikoa. Egundun osoan gizasemeak lanean gora ta bera.

Nafar-tar ibilkariak ikusten nituela galdetzen nien: «Zer iruditu zaizue gaurko eguna?». Talde baten eran-

tzuna auxa izan zen: «Egun ederra, polita, arrigarria».

Antxe ikusi genituen Itsaso Perez de Ziriza Iruña'tarra Paz de Ziganda'ko ikaslea, ta Ison Serrano neska gaztea. Ala zioten: «Pozik etorri gera, baita gure gurasoak, naiz euskeraz ez jakin, emen dire, gure izkuntza maite dutelako; maitasun ortan loturik ikusteak, pozik andiena eman digu».

Jaiaren biramonean, Erribera'ko guraso batek, jai ortara joan zen seme bateri galdetu zion: «Ikusi al duzu nolakoak diren euskaldun oiek?». Gaztetxoaren erantzuna: «Paketsuak eta alaiak dire».

Egun ortan urrats ederrak eman ziren Euskalerrria ta Erribera elkartzeko.

«Nafarroa oñez» Euskalerrria indartzeko ta zabaltzeko ardatza dugu.

Latxaga

Arkupeak

«Arkupeak» Jubilatuen Elkariteak antolaturik ospatu dugu «hirugarren adinekoak» urtearen ondar billera. Abenduaren 18-an 850 lagun beldu gara eta ospakizunak zoriontasun osoan eginak dira. Goizeko 11 1/2 etan Elizondoko Parrokian ospatu da Meza Nagusia ederra, gure eliz ederra yendez bete beterik. Elizkizun ederra kantu ta otoitzekin, ARKU-PEAK Elkaritearen defunto guzien animaren alde. Aldarean Martin Legarra, Juan Bautista Iratzoki eta Jesus Sotil jaunak. Mezan ginuen ere Amaia Zubiria kantaria eta kantaldi ederra egin zuen Eguberriko kantak erakutsiz eta arras ongi. Meza ondoren gure Aitzideriek erakutsi ziguten Elkaritearen egoera eta urtearen ze-

har zer ibilaldi eta ospakizun ederrak eginak diren.

«Arkupeak» egin dituen billera guziak arrakasta handia erdietsi dute eta denak zoriontasun osoan iraganak. Amerikan barna ibiliak dira eta bai España'ko leku aunitzetan ere eta datorren urteko asmo onak dira eta ibilaldi ederrak egin gogo dituzte eta hoiaren artean Karibeko ugartetara, Konpostelako Santiago bidea ere oñez, egunian 27 kilometro eginez eta 730 kilometro osatuz Konpostelaraño. Baita ere gure alderdiko ibilaldiak, Lourdes, Aralar, Isaba eta leku aunitzetara ere. Felipe Ganboa eta Martin Legarra jaunaren solasaldia guztiz interesgarria. Elizako ospakizun guziak burutaturik, autobusetan

denak Doneztebera eta Bordatxo dantza-lekuan bazkaria. Otordu ederra eta bazkaltiarak ere yaniza ederrarekin. Nafarroako Gobernuak ordezkariek ere hemen genituen eta hoiak ere beren itzalditza egin zuten. Gero soñu eta dantza eta bazkaltiar guziak sasoin ederrean dantzaren. Euskal Telebistakoak ere etorri ziren eta hartu zituzten hango soñualdia eta giro alaiak. Erran dute Telebistak hartu zuena Hilabete hurren 29-an erakutsiko dutela Telebista atseko 11-etan.

Eguna zoriontasun osoan pasa ginuen eta bozkarioz beterik etxeratu ginen. Gure goresmen bizienak gure billeraren antolatzaileeri. Aunitz Urtez!

M. Izeta

Berri ona

Familia aurkitzea gaur egun

«Artu aurra eta ama, eta zoaz iesi» (Mt.2,13-15.19-23)

PERTSONA bere askatasun eta osotasunera eramaten duen Jesukristoren salbamenak ere badu zerikusia ezkontza eta familiarekin.

Euskalerrriko gotzaiek 1995'go Piztuera'ko Pazkoan argitara eman zuten pastoral idazkitik artu dut goian jarri dudan izenburua. Badago premiarik familia aurkitzeko eta dagokion bidean jartzeko.

Zalantzarik ez dugu egiten familia asko aldatu dela azken urte auetan. Etxeko sukalde beroan egunero «errosarioa» errezzatetik Jainkoaren bearrik ez sentitzeraino joan gera. Familiako denak fededunak izatetik federik gabe bizitzeraino pasatu gera. Seme-alaba ugari izatetik bat edo bi aur izatera jeitxi da familia.

Zer erran nai du orrek? Familia bera ere ebanjelizatu egin bear dela. Kristau-ezkontzak eta familiak berengan duten edertasuna eta poza aurkitze lanetan sailatu bear dugu.

Kristau-elkarteak osatzen dugunok eta bereiziki Elizaren aurrean ezkondu zeratenok, garrantzi aundiko eginkizun oni ekin bear diogu: kristauen ezkontzak eta familiak gero eta kristauagoak izatea lortzeari.

Gotzaien eskaria da.

Ezkontza eta familia Jesukristogan burutu eta santu egindako giza errealitateak dira. Gauza ederra da ikustea, Jainkoaren itzalak nola babesten eta bikaintzen dituen pertsonak.

Senar-emazteen aremanak elkartasunezko eta errespetuzko jokabideetan oinarrituak izan bear luke. Gizon-emakumeak duintasun ber-bera dute; biak dira, beraz, errespetagarriak. Seme-alaben eta gurasoen arteko aremanak ere familiaren elkarte lokarriak sakontzeko bear dute izan.

Ala idatzi zien gurasoei Erroma-ko gotzai izango zen Joan XXIII'nak: «10 urtekin etxetik irten nintzenetik, gauza asko ikasi ditut liburutetan; geien maite ditudanak, ordea, ene guraso agurgarriok, zuengandik ikasiak dira».

Kristau-familiak fede-elkartea izan bear du. Jesus-ek elizari emandako eginkizuna bete bear du etxean familiak. Dudarik gabe, gure gizartearen etorkizuna gure familietan dago.

Artzalluz'ta Joxemari



Clinton'ek Bosni'n pakea lortu Lortuko ote luke emen?

Bosni'n pakea lortu dula esan dugu. Oraingo beintzet. Alare, lanik naiko izengo dula iduritzen zaku, pake orri iraunpena ematen. Oraindik bizirik bait dago Bosni'n gorrotoa.

Aspaldidanik oso nasia bait da Bosni'ko jendea: Albaniarrak, Bulgariarrak eta Mazedoniarrek baña bereiziki Bosniarrak, Serbiarrak eta Kroaziarrak.

Jende oiek denak, enda edo kasta bat berekoak dire: Eslabitarak. Erlijioa da, eta kultura, bereizten dituenak. Bosniarrak, musulmanak dire. Beste biak kristauak dire, baiñan alkarren etsaiak erlijioz ere: Kroaziarrak, katolikoak; Serbiarrak, ortodokoak; ots, Aitasantua Elizaren Burutzat artzen ez dutenak.

Kulturaz berriz, sarkaldetarrak, «okzidentalak» eta zeoro europarrak, Kroaziarrak; «orientalak», sortaldetarrak, eta ez ain europarrak: betidandik Errusiaren adiskide aundiak. Kroziarrak eta Serbiarrak izkuntza bera dute, baña kroazierrek sarkaldeko idazkera erabiltzen dute, gurea bezalakoa; Serbiarrak ordea, sortaldekoa, Errusiaren idazkera. San Zirilo'k asmatua delako, «zirilitarra» esan oi zaion idazkera.

Bosniarrak, berriz, kulturaz, maometar guztiak bezala, naiz gaur europar-kutsu aundikoak Arabiarrak geiago dire europarrak beño.

Alare, aski era paketsuan bizitzen ikasiak zeuden jende-mota oiek denak, Yugoslabi puskatuta zoritxarreko Laterri ura osatzen zuten Errepubliket askatasuna lortu zutenean.

Komunistek jarri ziren Serbi'n agintzen, eta Serbi'ko Jaurilaritzak komunista orren esanera jarri zen berriz Yugoslabi'rena izendako gudarozte edo ejertzitu guzia. Komunistak bait ziren bere agintariak!

Bere burua indartsu ikusirik, lur-lapurtu-zale bait dire Laterri komunistek, Serbi aunditu naiean iraultzara bultzatu zituzten Bosni'n bizi ziren serbiarrak. Sortu san guda. Egin ziran ser-

biarrek Bosni'ren erdia beño geiagoren jabe, eta izugarriak dire an egin dituzten era guztiko okerkeri gaiztoak: Jendea il; emakumeak indarpetu; Bosniarrei etxeak eta lurak kendu sierbiarrei emateko; eta, Sarajebo'n, leioetatik tiroka, kalean paketsu zijoan jendeari bizia kendu... Oroi ditzegun Sarajebo'ko «franko tiradore» edo «beren-kasako-tiratzaille» serbiar nazkagarri oiek, ia-ia atzo arte giza-kume-eizean ibilli direnak.

Etsaiak omen zirelako orrenbeste jende il duten gaizkille oiekin zer egin erabakitzea izengo da Clinton'entzat auzirik zailena. Yare, libre, utzi? Epailleen eskuetara eraman? Olanda'ko Den AAg edo Le Aye'n dauka bere egoitza Nazioarteko Epaimai Nagusiak. Epaimai orrek Bosni'ko serbiarren Lendakaria den Karadzik eta serbiar oien gudaroztearen Buruzagi den Ratko Midik'en baitura eskaturik dauka. Zer egin dezake Clinton'ek? Epaillei lagundu? edo bi gaizkille oiei, batere kargurik, gabe pakean eta zoriontsu bizitzen utzi?

Lendakari bikaña irten zaie Clinton Ameriketako Laterri Alkartuei. Ez dakit Euskalerrrian Bosni'n lortu duna lortuko luke, baña izengo luke emen ere an irten zaion arazo bera. Bai bait dugu emen ere, bere etsaia dan orok eriotza merezi dula pentsatuz, ustezko bere etsai oiei, atzetik isilik urbilduta, kasatik tiro bat sartu dienik bat beño geiago; eta, baita, bonbak jarrita, kalean zijoan jende bate-re errurik gabea il duenik. Eskatzen zioten «iraultza-zergarik» ordaintzen ez zielako il zuten, tiroz, baiturik zeukaten Sigma oleko nagusia! Iltzaille guzti oiekin zer egin? Espetxera sartu? Arkakoso batzuk iltzea besterik egin ez ba'lute bezala, pake goxoan utzi? Ta, buru auleko gixagaixo batzuk besterik ez diren pistolari errukari oien agintariekin... zer egin?

Latiegi'tar Bixente